



Bote-bote

Gai honekin zerikusia duten arloak

- GORPUTZ HEZKUNTZA.
- TUTORETZA.

HELBURUAK

- Haurrek jolasteko aukera ezberdinak izatea.
- Aisialdiaz taldean gozatzea antzinako jolasak berreskuratuz.

MATERIALAK

- ◆ Kontserba potea.
- ◆ Hartxintxarrak.

MARRO, ITURRIAK, BOTE-BOTE... Inoiz entzun al dituzue jolas izen horiek? Ba galdetu zeuen guraso, izeko-osaba, aitona-amonei ea ezagutzen dituzten. Bote-bote izenekoan aritu nahi duzue? Ezkutaketa bezalakoa da baina dibertigarriagoa.

Jolasa, pausoz pauso



Kontserba pote batean hartxintxarrak sartu eta zapaldu potea harriak ez ateratzeko. Potea astintzean, oso zarata polita ateratzen da.



Hasteko, erabaki ezazue nork emango dion jolasari hasiera, alde batetik; eta bestetik, nor geldituko den. Gero, jarri potea leku estrategiko batean (plaza-



ren erdian, esaterako); bertatik jokalaria batek potea ahalik eta urrutien jaurtiko du. Gelditzen denak (A jokalaria deituko dugunak) potearen bila



joan eta hasierako lekura bueltatuko du; bitartean, beste jokalaria guztiak ezkutatu egingo dira. Orduan, A jokalaria beste- en bila aterako da: norbait



ikusten duen bakoitzean, potea dagoen txokora itzuli eta potea eskuz astinduz *bote-bote...* (eta ikusitako lagunaren izena)



esango du. Baina aurkitutako laguna arinago ailegatzen bada poteraino, hori astinduz eta *bote-bote* esanez, berriro ere urrune-



ra botako du, eta lehena- go agerian geratu direnak ezkutatu egingo dira. Jokalaria guztiak topatuta- koan, bukatzen da jolasa.



Jarraitu nahi baldin baduzue, lehen bueltan gelditu denak jaurtiko du potea eta ikusitako lehen laguna geldituko da.

Ohiko jokuak gustuko badituzue, *Jolas-fixategia* zabaldu eta zuen inguruko helduei galdetu. Fitxa horretan honako datuak apunta ditzakezue:

Iturria:
ARRANZ; J.D. **Juegos al aire libre**. Escuela española. Madrid, 1995.

Jolasaren izena

Barruan ala kanpoan jolasteko den.
Zenbat lagunentzako den.
Arauk:.....

Behar duzuen materiala:

.....

.....